



TOLOSAKO  
UDALA

## GOBERNU BATZARRA

2019.10.22

**Alkatea:**  
**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Nerea Letamendia Beloso**  
**Begoña Tolosa Mendia**  
**Patxi Amantegi Zubiria**  
**Xabier Balerdi Tolosa**  
**Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi urriaren hogeita biam, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

**Idazkaria:**  
**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzailea:**  
**Ainhoa Molinos Zubiaurre**

1. Aurreko akta onartzea.
2. 2019/1637 Dekretuaren berri ematea (2019/52 faktura-zerrenda).
3. Dekretu hauen berri ematea: 2019ko urriaren 11ik 17ra (dk2019/633-2019/1.674).

### **1. AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko urriaren 15eko akta aztertu ondoren, 2. gaian, Onartzea Tolosako udaleko lau administrari plaza hornitzeko hautaketa jardunbidea arautuko duten oinarriak, eta deialdia egitea. honako zuzenketa hau egin da:

Jartzen duenean:

*“Kontuhartzaileak adierazi du ez zaiola ondo iruditzen Kontabilitateko administrariaren plaza kontabilitateko ezagutzarik gabe bete ahal izatea, plaza hori Administrazio Orokorreko plazen barruan dagoela dio. “*

Horrela jarri behar du:

*“Kontuhartzaileak adierazi du ez zaiola ondo iruditzen Kontabilitateko administrariaren plaza kontabilitateko ezagutzarik gabe bete ahal izatea, bi prozesu egin daitezkeela eta bigarrenengan, kontabilitate azterketa derrigorrezkoa izatea.*

*Begoña Garmendia Vazquez, Udal Idazkariak, plaza hori Administrazio Orokorreko plazen barruan dagoela dio.*

Zuzenketa egin ondoren, batzarkideek aho batez onartu dute akta.



TOLOSAKO  
UDALA

## **2. 2019/1637 DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2019/52 FAKTURA-ZERRENDA).**

Idazkariak 2019/1.637 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**Zk.: 2019/1637**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak**, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hau:

52 zenbakia duena, 193.593,47 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak ondorengo hau

### **EBATZI DU:**

**LENEHIK.-** Onartzea ondorengo faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

52 zenbakia duena, 193.593,47 eurokoa.

**BIGARREN.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2019ko urriaren 11an



Batzarkideak jakinaren gainean geratu da.

**3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO URRIAREN 11IK 17RA  
(DK2019/1.633-2019/1.674).**

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2019ko urriaren 11tik 17ra bitartean (DK 2019/1633-2019/1.674) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei. Honako hauek dira:

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1633	2019	11/10/2019	HIRIGINTZA	ERREMENTARI 5 ERAIKINEKO FATXADAK KONPONTZEKO OBRA BAIMENARI DAGOZKION OBRA AMAIERAKO AGIRIAK AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
1634	2019	11/10/2019	HIRIGINTZA	OBRA BAIMENA ORIA 4 - 6 GARAJEETAKO ARRAPALA
1635	2019	11/10/2019	HIRIGINTZA	ARRAMELE 2 ERAIKINEAN BEHE SOLAIRUKO ETXEBIZITZAREN SEGREGAZIOA ETA ESTALKIPEKO OINAN ETXEBIZITZAREN ERABILERA ALDAKETA EGITEKO KONTSULTAREN ERANTZUNA
1636	2019	11/10/2019	HIRIGINTZA	RONDILLA KALEA 18KO ESKAILERARAKO TEILATU-ARGIZULOA BERRITZEKO BAIMENEKO OBRA AMAIERAKO AGIRIAK OSATZEKO ERREKERIMENDUA
1637	2019	11/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	ONARTZEA 52 ZENBAKIA DUEN FAKTURAZERRENDAKO FAKTURA GUZTIEN ETA BAKOITZAREN GASTUA ETA ORDAIN DITZATELA AGINTZEA.
1638	2019	11/10/2019	AZOKAK	BERRIZ PROGRAMA: 3 HIRUHILEKO DIRULAGUNTZA EMATEA MIREN GARBIÑE OKARIZ ETA MONICA GOYARI
1639	2019	11/10/2019	PERTSONALA	JOS. O. G. (BAIMENA OSTIRALETAN LEHENAGO IRTETZEKO)
1640	2019	11/10/2019	PERTSONALA	CONTESTACIÓN RECURSO DE RESPOSICIÓN J.A. T.S.S.
1641	2019	14/10/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAREN SUSTAPEN ETA PROMOZIOERAKO MARKETIN ZERBITZU KONTRATAZIOAREN HASIERA ONARTZEA



TOLOSAKO  
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1642	2019	14/10/2019	UDALTZAINGOA	RE TAXISTAREN AUTO ALDAKETAREN ESKAERA ONARTZEA
1643	2019	14/10/2019	PERTSONALA	TOLOSALDEKO HILTEGIKO MANKOMUNITATEAN UDAL LANGILEAK EGINDAKO LANAK
1644	2019	14/10/2019	AZOKAK	MIKOLOGIKA. BAIMENA EMATEA URRIAREN 16TIK 19RA ANTOLATZEKO
1645	2019	14/10/2019	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 50(-2) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA
1646	2019	14/10/2019	IDAZKARITZA	GIPIZKOAKO BTZAR NAGUSIETARAKO EGINDAKO LANAK ORDAINTZEA
1647	2019	15/10/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	L.G.M.RI URRIKO UDAL DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA
1648	2019	15/10/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	M.S.F BALIOANITZEKO ETXEBIZITZAREN KONTRATUA LUZATZEA
1649	2019	15/10/2019	HIRIGINTZA	C. J. J-RI ERREKERIMENDUA
1650	2019	15/10/2019	KULTURA	UDAL MUSIKA ESKOLAKO IKASLE M.R.M.-REN BAJA ETA DIRU ITZULPEN ESKAEREI ERANTZUNA
1651	2019	15/10/2019	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO APARKALEKUAREN BARRUKO SUHESI ATEAREN BERNUA JARTZEKO PERMACA, S.L., ENPRESAK EGINDAKO AURREKONTUA ONARTZEA
1652	2019	15/10/2019	KULTURA	MUSIKA ESKOLAKO IKASLE A.G.L.REN BAJA ETA ITZULPEN ESKAERARI ERANTZUNA
1653	2019	16/10/2019	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO 6 JABEKIDEEI EGIKARITZE AGINDUA
1654	2019	16/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	14/2019 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA
1655	2019	16/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	15/2019 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA
1656	2019	16/10/2019	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 7 - 5. EZKERRA ETXEBIZITZA BANATZEKO BAIMENA



TOLOSAKO  
UDALA

1657	2019	16/10/2019	AZOKAK	GARAGARDO ARTISAUA EGITEKO LOKALAREN ESKAERARI EZEZKOA EMATEA
------	------	------------	--------	--

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1658	2019	16/10/2019	FESTAK	IURRAMENDIKO BIZILAGUN ELKARTEARI 2019KO AURREKONTUETATIK 500 EUROKO DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEA.
1659	2019	16/10/2019	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 7-5.EZKERRA ETXEBIZITZAREN SEGREGAZIOA EGITEKO BARNE BERRITZEKO OBRA BAIMENA
1660	2019	16/10/2019	AZOKAK	SIGNO DIGITAL S.L.RI BAIMENA EMATEA GRABAKETA EGITEKO ZERKAUSIAN URRIAREN 19AN
1661	2019	16/10/2019	AZOKAK	TXURROAK SALTZEKO ATOIA JARTZEKO ESKAERARI BAIMENIK EZ EMATEA.
1662	2019	16/10/2019	PERTSONALA	XAB. C.Y. (IKASTAROA)
1663	2019	16/10/2019	HIRIGINTZA	BERDURA PLAZA 1EKO FATXADA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA (EIT-AREN ONDORIOZ EGIN BEHARREKO OBRAK)
1664	2019	16/10/2019	KULTURA	B.H.G. MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAREN BAJA ESKAERARI ERANTZUNA
1665	2019	16/10/2019	PERTSONALA	K. C. G. (IKASTAROA)
1666	2019	17/10/2019	HIRIGINTZA	INMOBILIARIA URETARI ERREKERIMENDUA
1667	2019	17/10/2019	HIRIGINTZA	RONDILLA 18 BEHEKO "KING" ESTABLEZIMENDUAREN JARDUERAKO TITULARRA DEN S. S.-I JAUNAREN AURKA ZEHAPEN ESPEDIENTEA ABIARAZTEA
1668	2019	17/10/2019	HIRIGINTZA	NAFARROA ETORBIDEA 2KO FATXADAKO KONPONKETAK EGITEKO OBRA BAIMENA
1669	2019	17/10/2019	PERTSONALA	J. D.A. (LAN MURRIZKETA %50A)
1670	2019	17/10/2019	IDAZKARITZA	UDAL ANTOLAKETA BERRITU ETA EGITURA ERAGINKORRAGO BAT LORTZEKO OTXANDIO & TEAM CONSULTING, S.L. ENPRESA KONTRATATZEA.
1671	2019	17/10/2019	IDAZKARITZA	GARAJE ESKUALDATZEKO PREZIOA ADIERAZTEA. ALAIN ITURBE PASABAN.
1672	2019	17/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	2019KO AZAROAREN 30AN EPEMUGA DUEN MAILEGUAREN AMORTIZAZIOA ONARTU ETA ORDAINTZEA, 0200.932.02.011.00 PARTIDATIK,



TOLOSAKO  
UDALA

				158.362,50€KO KOPURUA.
--	--	--	--	------------------------

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1673	2019	17/10/2019	HIRIGINTZA	FIDANTZA BUELTATZEA HERRIBIDEAREN ERABILERAGATIK
1674	2019	17/10/2019	AZOKAK	TOLOSA GOXUA 2019

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:55ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**